

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak % 23,7an murriztu du goi-karguak eta konfiantzako postuak

*Egiturazko murrizketa horren bidez, urtean 900.000 euro aurreztuko da*

Lunes, 18 de julio de 2011

Nafarroako Gobernuak 2011-2015 legealdiko departamentuen egituraren berri eman du gaur zuzendaritza nagusi eta konfiantza-postuei dagokienez. Horren arabera, egitura % 23,7 an murrizten da; lehen 97 goi-kargu eta konfiantza postu ziren, eta hemendik aurrera, 74 izango dira.

Zehazki, goi-karguak % 14 murriztu da eta 50etik 43ra pasa da, bi kontseilari eta bost zuzendari nagusi edo haiei lotutako postuak kentzean.

Konfiantzako postuei dagokienez (zuzendariak, gabineteburuak eta gabineteko laguntzaileak), Nafarroako Gobernuaren egitura berrian 31 plaza daude, irten berri den Gobernuan 47 zaudenean; hau da, % 34 murriztu da.

Kendu diren goi-kargu eta konfiantzako postuei esker, urtean 888.239 euro aurreztuko dira. Zehatzago, bi kontseilari kenduta 129.086,44 euro aurreztuko da; bost zuzendari nagusi kenduta, 276.513,30 euro; gabineteburu gutxiago izanda, 100.999,36 euro; eta gabineteei laguntzeko langileak gutxituta, 381.640 euro.

Zifra horiekin, departamentu-egitura horrek 2011-2015eko Nafarroako Gobernuaren LORAFNA indarrean sartu zenetik zorroztzena bihurtu du. 1983an eta 1995ean osatutako gobernuek izan zituzten soilik zortzi kontseilari.

### Departamentuen egitura

[Iragan uztailaren 5eko bilkuran onetsitako departamentuko bost egituraz gain, gaur beste bi egitura onartu dira \(Hezkuntza eta Osasuna\), eta azken departamentuak zer ildo nagusi izango dituen jakin da \(Landa Garapena\); eta gauzak ondo bidean, azken horrek dagokion foru-dekretua datorren astean onar dadin eskatuko du](#)

Funtsean, departamentuko egitura horiek, departamentu bakoitzerako idazkaritza tekniko nagusi batez gain, honako organo hauek sortzen ditu:



Sanchez de Muniain eleduna gobernuko bilkuran.

### Hezkuntza Departamentua

- Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusia.
- Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia.

Euskarabidea erakunde autonomoa Departamendu horri atxikitzen zaio.

### Osasun Departamentua

- Osasuneko Zuzendaritza Nagusia.

Nafarroako Osasun Zerbitzua eta Osasunbidea erakunde autonomoak Departamentu honi atxikitzen zaizkio. Baita Miguel Servet Fundazioa ere, irakaskuntza-jardueretarako eta osasun-ikerketarako laguntza zientifiko nahiz tekniko modura.

### Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua

- Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusia.
- Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Enpresa eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia.
- **Laneko eta Arriskuaren Prebentzioko Zuzendaritza Nagusia.**
- Ingurumen eta Uraren Zuzendaritza Nagusia.

Nafarroako Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa Departamentu honi atxikitzen zaio.

### **Hamaika zuzendaritza nagusiren izendapena**

Nafarroako Gobernuak, gainera, hamaika zuzendari nagusiren edo haiei lotutako postuen izendapenak onartu ditu, gainera:

### Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua

- Jose Maria Vazquez Royo, Nafarroako Larrialdia Agentziaren zuzendari-gerentea.

### Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua

- Edurne Elio Aldunate, Komunikazio/ Gobernuako Eledunaren Bulegoko zuzendari nagusia.
- Ana Zabalegui Reclusa, Kulturako zuzendari nagusia
- Carlos Erce Eguaras, Turismoko eta Merkataritzako zuzendari nagusia.
- Fatima Baigorri Romero, Harremanetako Departamentuaren zuzendari nagusia.
- Salvador Estébanez Eraso, zuzendari nagusia eta Nafarroako Gobernuaren ordezkaria Madril.

### Hezkuntza Departamentua

- Iñigo Huarte Huarte, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusia.
- Maximino Gomez Serrano, Euskarabidearen zuzendari-gerentea.

### Osasun Departamentua

- Angel Sanz Barea, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzendari-gerentea.

### Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua

- Miguel Pozueta Uribe-Echeverria, Nafarroako Kirol Institutuaren zuzendari-gerentea.

### Sustapen eta Etxebizitza Departamentua

- Maria del Camino Bonafaux Martinez, Herri Lanen zuzendari nagusia.

### **Beste zenbait izendapen**

Foru Gobernuak, gainera, zuzendaritza nagusiari maila txikiagoko ondorengo izendapenak onetsi

dizkio:

Hezkuntza Departamentua

Pedro Gonzalez Felipe, Nafarroako Eskola Kontseiluko presidentea

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua

- Carolina Castillejo Hernández, Menpekotasunaren Nafarroako Agentzia Kudeatzeko zuzendariordea.
- Irache Ojer Campos, Menpekotasunaren Nafarroako Agentziako Menpekotasun Zerbitzuen zuzendariordea.
- Antonio Brugos Larumbe, Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Menpekotasuna Prebenitzeko zuzendariordea.
- Maria Luz Munarriz Desojo, Gizarteratze Zerbitzuko zuzendaria.